

ZEHARKA OTE LITEKE KALEKANTOIRIK?

Lierni Mendizabal
Hondarribia, 16 urte

*Ardangelara jaitsi eta
edan ezta ere,
edandakotzat joa izanen zara,
baldin bait ere!*

Autobusaren zurubi kaxkarretatik lurrerainoko jauzi txikia eman ondoren, ezker-eskuin so egin du. Inguraldea ezaguna zaio, baina egun argiz ikusi ohi duenez, horrela, gauaren iluncan murgildurik arrotz sentitzen da. Haize zurrumbilo hotz batek ile kixkurak zabunkatu dizkio eta sorbalda jasoaz, berokiaren lepo tentean ezkutatu du musua.

Ordulariari begirakune azkarra eman eta bulegorantzako bidea egiten hasi da. Bi gauza ditu soilik buruan: Samuel Collins eta segundurik laburrena ere galtzearen garrantzia. Garaiz heldu behar du bilkurara, mila purrustada entzun nahi ez baditu, behinik behin! Desenkusatzea alferrikakoa litzateke, neurtezinezko balio eta garrantzia duten txostenak baitaroaz alboan, ardura larregi behar bada enpresan sartu berri den mutil gazte batentzat.

Kaleak hilik daude. Noizbehinkako auto bakan batzuen hotsa besterik ez da entzuten eta kaleargiek eskainiriko dirdira urria, hutsaren pareko da. Alderdi orotara so eginez doa Jonathan. Oinbidea ur arrezko osinez josia dago, ezinezkoa egiten delarik galtzen beheak ziprizindu gabe kale bakarti

hura zeharkatzea. Begirada jaso du ondoren eta etxeorraz garai haien azpian nimiño sentitu da, leba gabeko norbait. Baina hori ez da hala, garrantzi handiko irudia da bere enpresa jokutzen ari den xake partida hartan, erregina beharbada. Horixe da Samuel Collins horrenbeste arduratzen duena, bekaitz galanta dio, bai! Baina ondamuak barrenak jan dizkion kristaua, edozertarako gai omen da. Hala ohartarazi dute behintzat Jonathan bulegoko adiskideek; arduraz ibil dadila etengabe errepikatu diote.

Pare bat kale aitzinago eskumarantz okertu da, baina zeharkatu behar duen kalekantoi hura ikustean, kolpean geratu da. Han ez da kaleargirik ageri, guztia ilunpean murgildurik dago. Bi bider pentsatu behar izan du kalekantoia zeharkatzen hasi aurretik. Lehen urratsak ematearekin batera, ahots erlats baten marmarrak heldu zaizkio belarrietara:

—Aizak, hi! Emaidak zerbait!

Kartoizko kaxa artean agure bat begietsi du. Egoera penagarrian dago berau. Soinean trapu zahar ugari baditu ere, dardaraka ari da eta tragu laburrak ematen dizkio amaitzear dagoean whisky botila txikiari. Begira geratu zaio Jonathan-i eta zutitzeko ahalegina egin badu ere, ezin izan ditu bi oinak lurrean tente ipini.

Eskua berokiko sakelean sartu du Jonathanek eta txanpon batzuk aurkitu ostean, agurearen alborra jaurti ditu, horrela bakean utziko duen esperantzaz. Bideari ekin dio ondoren, denbora etsai duela gogoratuz.

Iluntasunean barrena sartu ahala, geroz eta entzungaitzago egiten dira autoen hotsak eta argirik

ezak. Horrek, hurrengo pausua eman aurretik zorua ongi aztertzer behartzen du Jonathan.

Berokia estekatu du. Zenbat eta gehiago sakone-ratu kalekantoian barrena, orduan eta hotz handi-agoa ari duela iruditu zaio gazteari eta ahurrak igurtzi behar ditu eskuak izoztuko ez bazaizkio.

Bakardade, isiltasun eta ilunpe harekin urduri-tzen hasia da. Nahita ere ezin du kalekantoia-ren amaiera begiztatu, ainube sendoak pare bat pausu aitzinago ere ez baitio ikusten uzten.

Momentu labur batez, isiltasun sakona apurtuz, bere giblean oin-hotsak entzun dituela iruditu zaio Jonathani, orain isildu egin badira ere. Hozkirri min bat sentitu du gorputz osoan zehar, baina ez da gelditu, kalekantoï madarikatu hartatik ahalik eta bizkorren irtetea besterik ez baitu desio. Oinkadak bizkortu ditu beraz. Baina, berriro ere, norbait segi-ka ari zaion irudimena du. Bereak ez diren oin-hot-sek durunditzen dute kalekantoï osoan.

Beldurrak eragindako etengabeko zirrarek, izer-ditan blai utzi dute. Hotzetik berora pasatu da, xake jokaldi batean, hutsegiterik txikienaz, irabaz-ten joatetik partida guztia galtzera pasatzen den bezalaxe. Ikaraturik dago. Ez da biratzera ausar-tzen, ikus dezakeenaren beldur baita. Are gehiago bizkortu ditu oinkadak, ia lasterka ari da eta ezin-du urratsik non pausatzen duen zaindu. Ur arreak galtzen beheak guztiz likistu dizkio jada, baina ez da hori bere ardura nagusia momentu hauetan, oin-hotsak geroz eta gertuago sumatzen ditu eta.

Aurrera so egin eta oraindik ez da kalekantoï madarikatu haren amaiera inondik inora ageri.

Arras ikaraturik dago, baina biratu beharko lukeela otu zaio. Hala, geratzen zaion adore apurra bildu eta bat, bi, hiru... zast! Atzeruntz so egin du... Han ez da inor ageri! Ibiltzeari utzi eta han geratu da, zutik, atzera begira eta arnasa berreskuratu nahian. Aire izoztua jaisten zaio eztarrian behera eta gorputzeko beroa, lurruntzen ari balitz bezala, desagertu egiten da, poliki-poliki.

Bihotz taupadak lasaitu zaizkionean, ostera bueltatu eta aurrera jarraitu du. Astiro doa, presarik ez balu bezala, bere irudimenaren traizioak madarikatuz.

Argi xume bat ikuskatu du urrunean, baina ibilian-ibilian horren urrun ez zegoela ohartu da eta ilunpetik irten da jada. Orain, txarto bada ere, inguruko txokoak ikusi eta autoen tutuak entzun ditzake. “Zibilizazioa azkenik!” etorri zaio gogora. Eskerrak izu guztiak pasatu zaizkion, horrela bere eginbeharretan konzentratu ahal izango baitu pentsamendua.

Negozioak dauzka buruan, ostera ere gibelean oin-hots arin batzuk sumatu dituenean. Oraingoan, bi bider pentsatu barik jiratu nahi izan badu ere, erasotzaileak ez dio horretarako betarik eman eta lepezamarrean jasotako kolpe lehor batek lurrera bota du.

Gorputz atalak ezin mugi baditzake ere, oraindik arnasa dario. Begi lurrunduetan zehar, bere erasotzailearen larruzko oinetakoak eta praka urdin-nabarrak dakuski Jonathanek. Ezin du ordea begirada jaso, ez du horretarako indarrik. Erasotzailea hurbildu eta albora makurtu zaio. Ez dio, baina,

begiradarik xumeena ere eskeini. Maletatxoa zorutik jaso eta urrats geldoz urrundu da, inolako urduritasunik erakutsi gabe.

Jonathanek haren musua ikusi ahal izan du, ordea. Ikusi eta ezagutu egin du. Bulegoko adiñki-deen aholkuei jaramonik ez egitearen damu du orain. Kontu handiagoarekin ibili behar omen zuen, baina oraingo damuak alperrikakoak dira jada, kalekantoiaren albo batean botata baitago, ezin zutiturik eta kordea galtzeko zorian.

Hirugarrengoz sumatu ditu oin-hotsak... Oso geldoak eta astunak dira oraingoak. Usuena ikaratztea balitz ere, Jonathanek ezin du dagoeneko ezer sentitu, ezta hotzikararik ahulena ere. Laino artean balego bezala ikusi eta oihartzun errepikatu batez entzun, beste ezertarako aukerarik ez dio eskeintzen zoruan ahozpezu duen gorputzak.

Begiak zimurtu ditu, horrela hobeto ikus dezakeela frogatu baitu lehenxeago. Nahiko hurbil dagoclarik, ibilera baldarreko arlote bat bertarutzen ari zaiola begietsi du. Hasiera batean ezagutu ez badu ere, ahots erlats horrek salatu egin du bisitari berria.

—Arraioa! Zer demontre gertatu ote zaik hiri!

Amultsuki begira geratu zaio ondoren, laguntza eskeini nahi eta zer egin asmatu ezinik. Oraindik kordea galdu barik dagoela ikusita, aratinik ipini du kontu handiz. Biek dakite Jonathanek ez duela askoz gchiago iraungo, beraz azken momenturarte gaztearen alboan egotea izango dela egokiena bururatu zaio agureari.

Poliki eta leunki ezker eskua hartu dio zaharrak, piskatxo bat estutu du bere esku hotzen artean,

gaztea bakarrik ez dagoela ohar dadin. Isiltasuna nagusitu da ondoren, Jonathanek ezin baitu hotsik artikulatu eta agureak ez baitaki zer esan. Baina berehala apurtu da, zoritxarrean, isilunea: polizi auto baten adar hotsak, agurea erne ipini du. Egoera hausnartu eta urduritu egin da. Gaztearen heriotzaren errua berari egotziko diotela bururatu zaio. Gaztearen eskua zirt-zart batean askatu eta ahal duen bizkorren kalekantoian barrena desagertu da. Baina ez da antza oso bizkor ibili, poliziek ihesi doan norbait nabarmen begietsi baitute lehendabizi eta lurrean datzan gorpua ondoren.

Nahikoa izan dute autoko bi poliziek ikusitakoarekin beren eginbeharrari ekiteko. Autoa laga eta batak susmagarria jarraitu bitartean, bestea Jonathani hurreratu zaio. Berandutxo heldu dira ordea, honek jada ez baitu ez ikusten, ez eta entzuten ere.

Ez du denbora larregi behar izan morroiak agurea harrapatzeko. Adiskidearenganaino eramán du eta bertan eskuburdinak ezarri dizkio.

—Nik ez diat ezer egin! Ni laguntzen ari ninduan! Gainera, nik ikusi egin diat! Gazteari nork eraso dion ikusi diat! Baina... arraioa! Aska nazak! Ez dudala ba ezer txarrik egin!

—Sartuiok ziri hori beste bati, txo! —erantzun dio zakarki garaienak, eskuburdinak ongi estututa daudela frogatzen duen bitartean.

Gaitza izango da, noski, egia beste inori ere sins-taraztea. Bulegogizon garrantzitsu bati baino neketsuago egiten da agure mozkor bati fede ematea. Baina nork esan du San Frantziskoko kaleetan inoiz justiziarik badenik?